


ZINEBI64 ZINEBI EXPRESS



Azaroak 4 – 10 2022

OINARRIAK

ZINEBI EXPRESS film laburren lehiaketaren 13. edizioa azaroaren 4tik 10era arte egingo da (ostiraletik ostegunera). Lehiaketaren antolatzaileak honako hauek dira: ZINEBI - Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia, EHUKultura, UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea eta Arte Ederren Fakultatea, IMVAL, Euskal Herriko Zinema Eskola (ECPV) eta Tartanga Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua

1. PARTE HARTZEA

Lehiaketa irekita dago edozein nazionalitatetako ikasleentzat eta/edo talde tekniko eta artistikoentzat. Talde bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu dezake.

2. IZEN EMATEA

Parte hartzaileek honako data eta lekuan eman behar dute izena: azaroaren 4an, ostiralean, 13:30 eta 15:00 bitartean, Bizkaia Aretoa - UPV/EHUko hallean (Abandoibarra etorbidea 3, Bilbo). Talde bakoitzari pendrive bana emango zaio, egindako film laburra gordetzeko eta astlehenean antolakuntzari entregatzeko.

3. GAIA

Film laburretarako gaia azaroaren 4an, 13:30ean jakinaraziko da.

4. BALDINTZAK

- a. Film laburra izena emateko unean azaltzen den gaian oinarritu behar da. Generoa aukera askekoa da.
- b. Iraupena (kreditutituluak barne), fikzio eta dokumentalerako, gutxienez 2 minutukoa eta gehienez 5 minutukoa izan behar da. Animaziozko film laburrei dagokienez, gutxienez 30 segundokoak izan behar dira.

- c. Kanpoaldean % 100 Bilboko udalerrian filmatu behar da. Izenemate egunean jakinarazten diren hiru proposamenetan, gutxienez, kanpoalde bat sartu behar da.
- d. Film laburrak antolatzaileek emandako *pendrive*an entregatu behar dira, honako formatuan: H.264 kodeka, progresiboa, 16:9, 25 f/s.
- e. Film laburrak filmatzea eta muntatzea parte hartzaileen kontura izango da.

5. EPEAK

Inskribatutako film laburrak honako data eta lekuan entregatu behar dira: azaroaren 7an, astlehenean, 17:00etatik 19:00etara bitartean Bizkaia Aretoa-UPV/EHUko hallean, film laburraren eta parte hartzaile edo ordezkari baten izenarekin.

6. EPAIMAHAI

Aurkeztutako film laburrak epaimahai independente batek baloratuko ditu, eta hark emango ditu sariak. Epaimahaia ikusentzunezko sektoreko profesionalak osatuko dute eta horiek hautatuko dute, parte hartzen duten guztien artean, zer film labur proiektatuko diren azaroaren 10ean, 18:30ean, Azkuna Zentroko Golem Zinemetako 1. aretoan egingo den saioan.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

7. SARIAK

- 1. saria: 800 euro
- 2. saria: 600 euro
- 3. saria: 400 euro
- 4. saria: AUX saria. Taldearentzako afaria (gehienez 7 lagun)

8. ADINGABEAK

Edozein adingabek parte hartzen badu, alderdi teknikoan zein artistikoan, legezko tutorearen baimena beharrezkoa izango da. Baimena ZINEBIren webgunean egongo da eskuragarri, eta film laburra entregatzen den unean entregatu beharko da.

9. EGILEESKUBIDEA ETA IRUDIESKUBIDEA

Aurkeztutako lanek guztiz originalak eta argitaragabeak izan behar dute. Erabiltzen den musikak egileeskubiderik gabea edo lizentziaduna beharko du (adibidez, musiclibrary.es).

Gainera, taldeak film laburrean agertzen diren pertsona guztien baimena izan behar du, baita ager daitezkeen marka, leku eta/edo antzeko guztiena ere.

Erakundeak ez du bere gain hartuko egileeskubideen arloan edo datueskubideen arloan gerta daitezkeen arauhauteen edo arazozen gaineko erantzukizunik.

PROGRAMAZIOA

AZAROAK 4. Ostirala

- 12:00 Uniaren ostean, zer?
- 13:30 Film laburren GAIA duen gutunazala irekitzea.
- 13:30 h. – 15:00 Taldeek IZENA EMATEA Bizkaia Aretoa - UPV/EHU. (Abandoibarra Etorb. 3, Bilbo)

AZAROAK 7. Astlehena

- 17:00 h. – 19:00 Film laburrak ENTREGATZEA, Bizkaia Aretoa-UPV/EHU. (Abandoibarra Etorb. 3, Bilbo)

Erakundeak Datuak Babesteko Legea betetzeko konpromisoa hartzen du. Inskripzioinprimakian eta inskripzioarako beharrezkoa den beste edozein dokumentutan jasotako datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako edo zabalduko; ekitaldia antolatzeke eta barne mailan erabiliko dira soilik.

10. BESTE XEDAPEN BATZUK

Antolakuntzak beretzat gordetzen du parte hartzen duten film laburrak proiektatzeko eskubidea. Baztertu egingo dira eduki desegokia, jokabide desegokiak eta/edo antzekoak dituztenak.

Pertsonak antolakuntzari lagatzen dizkiote egindako film laburrak jendaurrean komunikatzeko, erreproduitzeko eta banatzeko eskubideak, bai eta ekitaldiaren antolatetarik eta sustapenetik eratorritako irudiak eta edukiak ere.

ZINEBI EXPRESSen parte hartzeak oinarriak onartzea dakar berekin.

AZAROAK 8. Asteartea

EPAIMAHAIK film laburrak ikusiko ditu Bizkaia Aretoa-UPV/EHU eta hilaren 10ean proiektatuko diren film laburren berri emango du.

10 NOVIEMBRE. Jueves

18:30 Film laburren PROIEKZIOA eta sari banaketa Golem Alhondegiko Zinemaren 1. aretoan (Arriquirar plaza 4, Bilbo)

ZINEBI64 ZINEBI EXPRESS



4 – 10 Noviembre 2022



INFORMAZIO ERABILGARRIA

Zabalgune plaza, 11, 1go solairua. 48009 Bilbao
+34 94 424 8698 / info@zinebi.eus / www.zinebi.eus

@zinebifestival @ZinebiFest @zinebifilmfest

